



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Osakidetza
Servicio vasco de salud

GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ

Dismenorrea primarioaren inpaktua bizi-kalitatean eta erizaintzaren esku-hartzeak

Literatura zientifikoaren berrikusketa kritikoa



GRADU AMAIERAKO LANA 2021-2022

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate - Eskola

Egilea: Carmen Alonso San Martín

Zuzendaria: Lucía Garate Echenique

Hitz kopurua: 5995 hitz

Data: 2022ko apirilaren 25ean

ESKER ONAK

*Luciari, lan honetan sinisteagatik
eta beti laguntzeko prest egoteagatik*

*Lau urte hauetan ezagutu
eta lagun bihurtu diren klasekideei*

Familiari, beti sostengu izateagatik

AURKIBIDEA

SARRERA	4
MARKU ETA JUSTIFIKAZIOA	5
HELBURUA	9
METODOLOGIA	10
Diseinu mota	10
Bilaketa prozesua	10
Barneratze eta kanporatze irizpideak	10
Artikuluen aukeraketa	11
Artikuluen analisia	12
EMAITZAK ETA EZTABAIDA	13
1- BIZI-KALITATEA	14
1.1 Alderdi biologikoa/fisikoa	14
1.2 Alderdi psikologikoa	15
1.3 Alderdi soziala	16
1. ERIZAINZAKO INTERBENTZIOAK	18
2.1 Zuzeneko interbentzioak	18
2.2 Bizi-ohituretan oinarritutako interbentzioak	19
2.3 Beste interbentzio motak	22
ONDORIOAK ETA MUGAK	24
BIBLIOGRAFIA	26
ERANSKINAK	28
1. Eranskina: Kontzeptu Taula	28
2. Eranskina: Bilaketa taula	29
3. Eranskina: Irakurketa kritikorako tresnak	31
3.1 Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia	31
3.1.1 Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia	33
3.2 Ikerketa kualitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia	35
3.2.1 Ikerketa kualitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia	37
4. Eranskina: Fluxu diagrama	39
5. Eranskina: Laburpen taula	40
6. Eranskina: Zuhaitz kategoriala	48

SARRERA

Marku eta justifikazioa: Dismenorrea primarioa (PD) hilerokoaren aurreko egunetan edo hilerokoan zehar ematen den eta ageriko arazorik ez duen umetokiko min bezala definitzen da. PDa gaixotasun ginekologiko ohikoena da menstruatzen duten emakumeen artean. Historikoki, hilekoa zikin, lizun, toxiko eta gaiztotzat jo izan da eta oraindik ere gai tabua da, mitoz eta sinesmenez blai jarraitzen duena. Azken urte hauetan, feminismoaren gorakada izan dela medio, emakume askok hilekoaren alterazioen, hilekoa bizitzeko modu berrien eta hilekoaren osasunaren garrantzia aldarrikatzen hasi dira. Hala eta guztiz ere, emakumeen ehuneko handi batek ez du osasun-arretarik bilatzen PDarekin erlazionatutako zeinu eta sintomak (z/s) dituztenean eta, orokorrean, automedikazioara jotzen dute.

Helburu orokorra: Dismenorrea primarioak bizi-kalitatean duen eragina eta horrekin lotutako erizaintzako interbentzioak aztertzea.

Metodologia: Literatura zientifikoaren berrikusketa kritikoa gauzatu da Medline, Cochrane, PsycInfo, Embase, Cuide eta Cinahl datu-baseetan zein Enfermería Clínica, American Journal of Obstetrics and Gynecology eta BMC aldizkarietan bilaketak eginez. Azkenean, Gradu Amaierako lan honetan 2011 urtetik aurrera, ingelesez zein gazteleraz argitaratutako 15 artikulua erabili dira: 7 ikerketa kuantitatibo transbertsalak, ikerketa kualitatibo bat, 5 entsegu kliniko eta 2 errebisio bibliografikoak.

Erantzunak eta eztabaida: Emaitzak bi kategorietan banatu ziren; alde batetik PDak bizi-kalitatean dituen eraginak eta bestetik PDarekin erlazionatutako erizaintzako interbentzioak. PDak eragin biopsikosoziala dauka patologia hau pairatzen duten emakumeengan. Erizaintzako interbentzioei dagokionez bost dira aztertutakoak: osasunerako hezkuntza eta kirola izan dira onurarik handiena erakutsi duten esku-hartzeak; bestalde, nutrizio-ohiturek, bero-terapiak eta akupresioak onbide moderatuagoa erakutsi dute.

Ondorioak eta limitazioak: Literaturaren berrikusketa honetan berretsi egin da, erizaintzaren garrantzia PDaren detekzioan, balorazioan eta tratamenduan, baita gizarte-mailan pairatzen duten pazienteengan dituen ondorio negatiboak ikusarazteko beharra ere. Terapia ez-farmakologikoen onurei buruz ikertzen jarraitu beharra dago, ez baitago horren inguruko ebidentzia sendorik egun.

Hitz gakoak: Dismenorrea, dismenorrea primarioa, bizi-kalitatea eta erizaintzako interbentzioak.

MARKU ETA JUSTIFIKAZIOA

Dismenorrea hilerokoaren aurreko egunetan edo hilerokoan zehar ematen den umetokiko min bezala definitzen da, hori hanka edota bizkarrera irradiatu ohi da. Dismenorrea grezieratik eratorritako hitz bat da eta haren esanahia: hileko zaila edo hilekoa izateko zailtasuna da (1,2).

Historikoki esanahi eta ezaugarri negatiboak eman zaizkio hilekoari. K.a. V. mendearen amaieran, Hipokratesek uste zuen hilekoaren odola hondakina zela, emakumeak odol gehiegi sortzen zuelako.

Erromatarrek, aldiz, hilekoaren odolusteari ondorio zoragarri eta arriskutsuak egozten zizkieten. Plinio Zaharra idazle eta militar erromatarrek idatzi zuen hilekoaren fluxuak ardo berriarekin duen kontaktuak garrantz bihurtzen duela, uztak belar bihurtzen direla, haziak lehortu egiten direla, zuhaitzen fruta erori egiten dela, erleen erlauntzak hil egiten direla... (3,4).

Gaur egun, horrelako usteak eragabekoak iruditzen bazaizkigu ere gure gizartean antzeko sinesmenak entzuten dira: menstruazioa pairatzen duen emakumeak dutxa hartu behar du, ezin da bainatu, odolustea gatzatu edo eten egingo delako; hilekoarekin dagoen emakumea ezin da garbitu ur hotzarekin; menstruazioarekin ezin da harreman-sexualik izan; hilekoarekin ezin da ilea garbitu ergel edo zoro gera zaitezkeelako... (5,6).

XIX. mendean pentsatzen zuten, umetokiak botere handia zuela emakumearen gorputzean, eta, beraz, medikuntzako agintari gehienek uste zuten hilekoaren garaian emakumea bereziki ahul zegoela eta gaixotasun kaltegarri ugari izateko prest zegoela. Horretarako, atsedean hartzea eta edozein motatako jarduera fisiko edo mentala saihesten saiatzea gomendatzen zuten (7).

Kultura askok arau edota murrizketa jakin batzuk dituzte menstruazioari dagokionez, eta horiek hilekoaren tabuari laguntzen diote.

Medikuntza eta biomedikuntza garatu gabe zeudenean, bi baliabide nagusi zeuden osasun-arazoei aurre egiteko: isolamendua eta higiena. Horrela ekin zitzaion hilekoari, eta, beraz, garai horretan sortu ziren menstruazioaren inguruko arauak eta erregulazioak. Gaur egun badakigu infekziosoak ez diren prozesuen aurrean (hilekoa, adibidez) isolamendua ez dela neurri eraginkorra (8).

Argi dago orduan, hilekoarekin lotutako herri-sinesmenak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun sozial eta kultural handien sorburu izan direla.

Menstruazioarekin gertatu zen bezala, dismenorrearen kontzeptuari esanahi eta ezaugarri desberdinak eman zaizkio.

Duela mende asko uste zen histeriak umetokian zuela jatorria, hortaz, hilekoan zehar emakume batzuk pairatzen zituzten kolikoak edo karranpak histeriaren ondorio zirela. Dismenorrearen jatorriaren beste teoria bat izan zen kanal endozerbikalaren mailan buxadura osoa edo partziala zegoela eta horrek sortzen zuela mina, odolaren kanporatzea oztopatzen baitzuen.

XX. eta XXI. mendeetan zehar dismenorrearekin lotutako aurkikuntza ugari kausitu ziren. Urte hauetan idoro diren aurkikuntza guztiekin, dismenorrea baldintza biologiko bat dela zehazten da, non hilekoaren fasean pelbis-mina sortzen den, batzuetan larria den ezintasuna ezarriz, esfera psikologiko eta sozialean ondorioak izan ditzakeena, aurretik aipatu den moduan (2).

Laurogeita hamarreko hamarkadan, feminismoak kritika egin zion androzentrismo zientifikoari; izan ere, ordura arte, diagnostikoari eta tratamenduari buruzko erabakiak hartzeko erabiltzen ziren ezagutza zientifiko gehienak gizonen bakarrak egindako azterketetan oinarritzen baitziren. Ikerketa medikoak, irakaskuntzak eta osasun-laguntzak, "gizonak balira bezala" begiratu die emakumei, eta ez dute haien arazo eta gaixotasun espezifikorik ikusi, ezta haien kexa, ondoeza eta mina ulertu ere. Emakumeen osasuna ugalketa-osasun gisa bakarrik aztertu eta balioztatu da, eta ikuspegi horrek eragotzi egin du emakumeen osasuna ikuspegi integral batetik lantzea. Desparekotasuna beraz, ez da ikerketan bakarrik gertatzen, baita osasun-arretan ere. Desberdintasunen atzean genero-estereotipoak daude. Esate baterako, gaur egun badakigu emakumeek gizonen baino maizago pairatzen dituztela patologia kronikoak; horregatik, emakumeek gizonen baino sarriago erabiltzen dituzte lehen mailako arreta-zerbitzuak, nekea eta min kronikoa adieraziz. Izan ere, osasun-profesionalen prestakuntzak leunki azpimarratzen du emakumeen eta gizonen gaixotzeko moduan desberdintasunak egon zitezkeenik, diagnostikatzeko metodo desberdinak izan zitezkeenik, edo terapiak eta farmakoak emakumeen eta gizonen artean jarduteko modu desberdinak izan zitezkeenik.

Hitz batez, oraindik ere, emakumeek pairatzen dituzten gaixotasunen, horien kausen eta horiek prebenitzeko moduaren gaineko ezjakintasun handia dago, ikerketa eta informazio faltagatik (9,10).

Gaur egun obulazio eta hilerokoa ugalketarako bakarrik garrantzitsuak balira bezala tratatzen dira, nahiz eta frogatu izana haien eragina osasun muskulueskeletikoan eta neurotransmisoreen orekan. Badirudi oraindik ere, arestian aipatu dugun ideia zaharra mantentzen dela, hau da, hilerokoa ezabatu beharreko arazo-iturria dela.

Egia da azken urte hauetan hilerokoaren inguruan eztabaidatu eta hausnartu dela mugimendu desberdinetatik (mugimendu feminista, ekologista, ikasle mugimendua, mugimendu artistikoak...) eta horietan, hilekoaren odoljarioaren kudeaketaren inguruko ekimen alternatiboak proposatu dira. Nolanahi ere, biztanleria orokorra kontuan hartzen badugu, argi dago ekimen horiek gutxiengoa direla eta, beraz, eragin praktikoa ere oso txikia dela. Dena den, ekintza eta ideia batzuek gizartean irismen handiagoa izan dute, adibidez, higiene menstrualeko produktu alternatiboek, hala nola, kopa menstrualak.

Egun, menstruazioarekiko jarrerak eta ideiak aldatzen doaz eta osasun sistemak horiek kontuan izan beharko dituzte arreta egokia eskaini ahal izateko biztanleriari (4,9).

PDa gaixotasun ginekologiko ohikoena da menstruatzen duten emakumeen artean. Munduko PDaren prebalentzia %50-%95ekoa da, hots, 855 milioi pertsona baino gehiago pairatzen dute PDa mundu mailan (7,11,12).

Bi dismenorrea mota desberdintzen dira:

- Lehen mailakoa (PD), non mina ez dago gaixotasun pelbikoekin lotuta. Anormaltasunik eza esplorazio klinikoan eta paraklinikoan.
- Bigarren mailakoa, non min menstrualak patologia pelbikoen ondorioa da, hala nola, endometriosisia. Dismenorrea sekundarioaren sintomen agerpena berantiarra da ohi da dismenorrea primarioa baino, normalean menarkia gertatu eta 2 urte baino gehiagora (1,2,7,11).

Dismenorrea moten arteko ezaugarri desberdintzaileak

	Dismenorrea Primarioa	Dismenorrea sekundarioa
Prebalentzia	%90, bereziki nerabeengan	%10
Etiologia	Umetokiaren uzkurdurak eta iskemia (hantura-faktoreengatik bitartezkatua, prostaglandinak, adibidez)	- Patologia pelbikoak (endometriosisia, miomak...) - Sortzetiko malformazioak
Garapena menarkiarekin lotuta	Lehenengo urtean zehar: obulazio-zikloak ezartzean	Urte batzuk geroago, kongenito mota izan ezik
Agerpen unea	Hilekoaren fluxua agertzerakoan edo lehenago. (8-72 ordu irauten ohi du).	Hilekoaren aurretik edo ondoren ager daiteke

(1)(Gaztelaniatik euskarara itzulia)

PDaren kausa nagusia hilerokoan zehar ematen den prostaglandinen gehiegizko askapena izan daitekeela uste da. Prostaglandinek, fluxua mugatzen duten umetokiaren kontrakzioak eragiten dituzte eta hodi arkuatoetan konstriktzioa eragiten dute. Ondorioz, hipoxia eta ondoren iskemia ematen dira, min menstrualak gauzatu. Zenbat eta handiagoa izan prostaglandinakopurua, orduan eta larriagoa izango da hilekoaren mina eta horri lotutako zeinu eta sintomak (z/s) (7,12,13).

Pazienteek PDaren ondorioz sentitzen duten mina zona suprapubikoan ematen den eta intentsitate gorabeheratsua duen karranpa bezala deskribatzen dute. Sabelpeko minarekin batera beste z/s batzuk ager daitezke PDan, hala nola, hantura, suminkortasuna, akidura, zefalea, polakiuria, depresioa, aldarte aldaketak, urduritasuna, zorabioak, traktu intestinalen arazoak, artralgia, bularreko sentikortasuna eta goragaleak (7,11,13).

Pentsatzen da zenbait faktoreek bidea ematen diotela PDari. Literaturak, arrisku faktore horiek bi taldetan multzokatzen dituzte. Alde batetik, arrisku faktore aldagaitzak daudela pentsatzen da: dismenorrearen inguruko familia-aurrekariak izatea bai ama zein ahizpenak (alde

batetik faktore genetikoengatik eta bestetik familiarengandik ikasitako jokabideak direla eta), adina (nerabezaro eta gaztetasuna), menarkiaren agerpen adina (<12 urte), ziklo-menstrualaren iraupena, ziklo-menstrualaren irregulartasuna, menstruazioaren iraupena (>7 egun) eta egoera sozio-ekonomikoa (baxua). Bestalde, arrisku faktore aldagarriak daudela sinesten da: tabako kontsumoa, alkohol kontsumoa, kafeina kontsumoa, GMI (<20koa zein >30ekoa izatea), ariketa fisiko falta, zenbait elikadura ohiturak (haien artean, fibran aberatsak diren elikagai gutxi hartzea, esneki gutxi kontsumitzea, gosaria ez hartzea...), bizimodu estresagarria izatea, loaren higie eskasa eta zenbait sintoma psikosozial pairatzea (hala nola, depresioa eta antsietatea) (1,11,14).

Ez dugu ahaztu behar emakume guztiek ez dutela menstruatzen, hala nola, haurrek, menopausia fasean dauden emakumeek, histerektomizatuek, haurdunek, bular-emalleek, kirol edo argaltasunaren ondorioz menstruatzeari usten diotenenek... eta halaber, emakumeak ez direla menstruatzen duten pertsona bakarrak, gizon transgeneroek, pertsona ezbinarioek edota identitate maskulinoarekin definitzen diren pertsonak ere hilerokoa izan dezakete.

Aurretik jorratutako tabua nabarmenagoa da aipatutako azken kolektibo hauetan, hilekoa isilpean gordetzeko beharra nabarmenagoa izaten baita pertsona hauentzat emakume zisgeneroentzat baino. Alde batetik, segurtasun eta aurreiritzien aldetik, erronka moduan bizi dute menstruazio-higie produktuek erostea, haien egunerokotasunean hauek garraiatzea, komun publikoetan erabiltzea... Aitzitik, menstruazioan zehar genero disforia areagotu edo berragertzen da. Nahiz eta pertsona hauek identitate maskulinoa edo ez binarioa garatu izana, haien genitalen ondorioz, jaiotzean sexu femeninoa esleitu zieten. Disforiaz gain, batzuk odoljarioarekin erlazionatutako depresioa edota ideia autolitikoak aipatzen dituzte. Hilerokoak beraz, gogoratzen die haien gorputzak ez duela bat egiten haien generoarekin. Oso ikerketa gutxi egin dira genero transmaskulinoaren espektroaren menstruazioaren inguru, bizi-kalitatearen inguru eta horrekin erlazionatutako bizipenen inguruan. Gaur egun paziente hauek informazioa eta laguntza gehiena blog pertsonaletan eta YouTubean aurkitzen dute batik bat, bertan haien esperientzia pertsonala azaltzen duten gizabanakoen bitartez (4,15,16).

Gomendagarria da beraz profesionalak genero-konnotaziorik gabeko hitzak erabiltzea menstruazioa pairatzen duten pazienteak izendatzeko, hala nola, *persona menstruantea/ menstruatzailea*, *paziente menstruantea/menstruatzailea*, *menstruatzailea*, *“menstruador/a”*... (15).

Erizaintzak, osasunerako heziketaren bidez, oso zeregin garrantzitsua betetzen du oraindik existitzen diren eta emakumeen osasunari eragiten dioten hilekoari buruzko uste kultural okerrak desmuntatzen, bai eta haur eta nerabeengan horri buruzko zalantzak argitzen ere. Era berean, emakumeek beren gorputzei buruzko ezjakintasun eta kontrol ez handia izan dute eta izaten jarraitzen dute, beraz, osasunerako hezkuntzak ahalduz ere lagun diezaieke.

HELBURUA

Dismenorrea primarioak bizi-kalitatean duen eragina eta horrekin lotutako erizaintzako interbentzioak aztertzea.

METODOLOGIA

Diseinu mota

Gratu Amaierako Lan honen helburuari erantzuna emateko literatura zientifikoaren errebisio bibliografikoa burutu da.

Bilaketa prozesua

Prozesuarekin hasteko lehenik eta behin helburua finkatu da eta bertatik kontzeptu nagusiak atera dira: PDa, bizi-kalitatea eta erizaintzako interbentzioak. Kontzeptu hauen sinonimoak egotzi dira lengoaia naturalean, euskaraz zein ingelesez eta jarraian datu base bakoitzeko tesauru lengoaia kontrolatura, deskriptoreak eskuratu. Lehen mailako dismenorrea kontzeptua “dysmenorrhea”/“disenorrea” deskriptoreekin definitu dira; kasu batzuetan lengoaia naturala “primary dysmenorrhea” erabili da bilaketa burutzeko, artikulua zehatzagoak aurkitzeko. Bigarrenik, bizi-kalitate kontzeptuarentzat “quality of life”/“calidad de vida” erabili da. Azkenik erizaintzako interbentzioei buruz bilaketak burutzeko hurrengo deskriptoreak erabili dira: “nursing”/“nursing care”/“nurse’s role”. (1. Eranskina: Kontzeptu taula)

Jarraitzeko, behin deskriptoreak eskuratuta, bilaketa ekuazioak osatu dira datu baseetan bilaketak burutzeko: Dysmenorrhea AND Quality of life/Dysmenorrhea AND (Nursing OR Nursing care OR Nurse’s role). Kasu batzuetan, ekuazioekin emaitza-kopuru txikia edo emaitzik ez denean lortu, dysmenorrhea deskriptorea bakarrik erabili da. CINAHL eta EMBASE datu baseetan “primary dysmenorrhea” lengoaia naturalean erabili da bilaketaren emaitzak kanporatze irizpideei doitzeko. Modu berean, bilaketa batzuetan 2011-2022 urte tartea limite moduan erabili da emaitzak ahalik eta eguneratuen eskuratzeko.

Datu-baseetan ez ezik, eskuzko bilaketa burutu egin da American Journal of Obstetrics and Gynecology, Enfermería Clínica eta BMC aldizkari elektronikoetan. (2. Eranskina: Bilaketa taula)

Barneratze eta kanporatze irizpideak

Formulatutako helburuari egokitzen diren artikuluen hautaketa kritikoa burutzeko zenbait barneratze zein kanporatze irizpide finkatu dira.

Barneratze irizpideak

- **Ikerketa eta lan motak:** errebisio sistematikoak, metanalisiak, kasu-kontrolak, entsegu klinikoak, behatzaileak izango dira baliagarri.
- **Helburua:** GrALaren helburuari erantzuten dioten artikulua.
- **Hizkuntza:** Gaztelaniaz eta ingelesez argitaratutako artikulua barneratuko dira.
- **Geografia:** Edozein herrialdeetan burututako ikerketak kontuan hartuko dira; jorratutako gaia mundu mailan eragin handia baitu.

- **Argitalpen data:** 2011 eta 2021 tarteko artikuluak hartuko dira kontuan, errebisioaren informazioa ahalik eta eguneratuen izan dadin.
- **Generoa:** Emakumeak zein gizon transgeneroei buruzko artikuluak kontuan hartuko dira.

Kanporatze irizpideak

- Barneratze irizpideak betetzen ez dituzten artikuluak.
- **Eskuragarritasuna:** *Full text*-ean lortu ezin diren artikuluak
- **Ikerketa eta lan motak:** Metodo zientifikoari erantzuten ez diotenak
- **Gaia:** Bigarren-mailako dismenorrea edo beste patologia menstrualak jorratzen duten artikuluak
 - o Abstract-ak irakurri ondoren erabaki zen akupuntura eta “Herbal therapy”-ren inguruan jorratzen duten artikuluak ez barneratzea. Gure estatuko erizainek ez baitituzte gai hauen inguruko ezagutza akademikorik ezta baliabiderik.

Artikuluaren aukeraketa

Bilaketa bibliografikoarekin hasteko, artikuluaren hautaketan aipatutako barneratze eta kanporatze irizpideen arabera egin da. Lehen aipatu denez, zenbait datu baseetan zein eskuzko bilaketan (American Journal of Obstetrics and Gynecology aldizkaria elektronikoan) urte limitea ezarri da (2011 urtetik 2022 urtera arte).

Guztira 994 artikulu eskuratu dira. Emaitzekin lehenengo sailkapen bat burutu egin da izenburuen arabera eta helburu (591 artikulu), hizkuntza (12 artikulu), argitalpen-data (61 artikulu) eta eskuragarritasun irizpideak (28 artikulu) betetzen ez dituzten artikuluak baztertu egin dira, guztira 699 artikulu kanporatu dira fase honetan.

Jarraitzeko, bikoiztutako 34 artikulu kausitu ziren, batzuk birritan, hirutan eta lautan ere errepikatuak, beraz, 65 artikulu kanporatuak izan ziren guztira.

Bigarren baheketa burutzeko, 230 artikuluaren abstract-a ikurri ziren eta helburutik aldentzen zirenak, emaitzik ez zituztenak eta artikulu ez zientifikoak kanporatuak izan ziren, orotara 213 artikulu.

Azkenik, gelditzen ziren hamazazpi artikuluaren irakurketa kritiko sakona egin zen, artikuluaren kalitatea ebaluatzeko eta datuen egokitasuna konprobatzeko. Modu honetan, artikuluaren helburuak, diseinuak, populazioak, neurketak eta emaitzak xehetasunez aztertu ziren, 2 artikulu baztertuz eta hamabost aukeratuz. (3. *Eranskina: Irakurketa kritikorako tresnak*)
Guzti hau fluxu diagraman laburbilduta begiztatu daiteke. (4. *Eranskina: Fluxu diagrama*)

Artikuluaren analisia


Hautatutako 15 artikuluekin laburpen taula bat eraiki zen. (5. Eranskina: *Laburpen taula*) Taula honetan hurrengo informazioa laburbildu zen: artikulua izenburua, egileak, argitalpen urtea, helburua, lagina, diseinua, interbentzioa eta artikulutik eskuratutako ideia nagusiak; azterlan bakoitzaren ikuspegi orokorra izateko.

Artikuluak arakatu ondoren bi kategoria nagusitan banatu ziren. Alde batetik, PDak bizi-kalitatean duen inpaktua aztertzen dutenak eta bestetik, zein erizaintzako interbentzio burutu daitezke PDa pairatzen duten pazienteen bizi-kalitatea hobetzeko. Ondoren, gai nagusi bakoitzetik azpikategoriak atera ziren, GrAL honen zuhaitz kategoriala osatuz. (6. Eranskina: *Zuhaitz kategoriala*)

EMAITZAK ETA EZTABAIDA


Gradu amaierako lan honen emaitzak eta eztabaida atala burutzeko, ezarritako helburuari erantzuten dioten 15 artikulu eskuratu dira. Hauetatik hamabi diseinu kuantitatiboa dute, bakar batek diseinu kualitatiboa eta bi berrikuspen bibliografikoak dira (2. irudian ikusgai). Jatorriari erreparatzen badiogu, ohartuko gara, artikulu gehienak Asian eta European burutu direla. (3. irudian ikusgai). Argitaratze urteari dagokionez, eskuratutako artikulu gehienak 2017-2020 urte tartean publikatuak izan direla (4. irudian ikusgai).

Diseinua




2.irudia: Artikuluen

Herraldea



3.irudia: Artikuluen argitaratze tokia

Urtea



4.irudia: Artikuluen argitaratze urtea

1- BIZI-KALITATEA

Bizi-kalitatea neurtzeko SF-36 eta EuroQol-5D galdetegiak erabili dira aukeratutako artikuluetan. Fernandez et al.-en (7) artikuluan EuroQol-5D galdetegiak erabili zuten eta batz besteko osasun-egoeraren puntuazioa 78,87 (gehiengo puntuazioa 100) izan zen. Huelvako erizaintza ikasleei burututako eta 2020an argitaratutako artikuluan, galdetegi berdina erabili zen. Aukera honetan, batz besteko puntuazioa apur bat altuagoa izan zen 80,04 (17). Frantzia burututako ikerketan SF-36 galdetegiak erabili zen, hau bi zatitan banatzen zen Physical Health Component Scores (PHCS), non “gaur egun” PDa pairatzen zuten emakumeen puntuazioa 71,21 izan zen eta Mental Health Component Scores (MHCS) non puntuazioa 59,23 izan zela (100 puntuazio maximoa izanda) (18).

Adinari dagokionez, bizi-kalitatea jorratzen duten ikerketa gehien lagina emakume gazte helduak izan dira eta hauen batekoz besteko adina 22 urte izan da. Badago artikulua bat, zein lagin gisa, emakume nerabeak hartu dituen (13-19 urte) (19) eta beste azterlan batean, laginaren adin tartea nabarmenki zabaldu da, 18 urtetik 50 urtera. Arestiko artikuluan ikustarazi da PDa prebalenteagoa dela 16-24 urte bitartean eta 25 urtetik aurrera leuntzen edota ebazten dela oro har (18).

PDak pairatzen duten emakumeek jasaten duten mina oso desgai izan daiteke. Hala ere, PDaren ondorioak ez dira soilik arlo fisikoan nabarmentzen, eragin biopsikosoziala baitu.

1.1 Alderdi biologikoa/fisikoa

Aurretik aipatu den moduan, PDaren sintoma nagusia mina da. Aukeratutako artikuluetan Visual Analogue Scale (VAS) eskalaren bidez neurtu egin da mina. Minaren intentsitatea kuantifikatzeko hurrengo harremana eraiki da eskala honen emaitzen eta min menstrualaren intentsitatearen artean: 1-3 arina, 4-6 moderatua eta 7-10 larria. Txinan egindako ikerketan (19) batz besteko VAS puntuazioa 5,43 izan zen, Ciudad Real-eko unibertsitate ikasleei burututako ikerketan 6,9 (7), Turkian osatutako ikerketan 7,14 (21), eta 3001 emakume frantsesei gauzatutako ikerketan 6 (18). Beraz, esan dezakegu, PDaren mina moderatua-larria dela orokorrean. Min menstrualaren beste ezaugarri batzuk dira; fluktuatzailea dela, aldagarria, aurreikusgaitza eta estresarekin, adibidez azterketa garaiekin, areagotzen dena. Abreu et al.-en artikuluan arabera (20), badaude zenbait ekintza minaren “trigger” moduan identifikatzen dituztenak; prebalentziaren arabera hauek identifikatu ziren: eserita egotea, ibiltzea, pisua jasotzea eta maskuria beteta izatea. Minaren lokalizazioari dagokionez, eremu maizkoenak abdomen baxua eta eremu lunbarra direla esan genezake (7,17–22).

Minetik at, PDak beste z/s fisiko batzuk eragiten ditu, prebalenteenak: akidura, bularreko sentikortasuna, zefalea eta larruzal arazoak dira. Z/s hauek minarekin batera, ageriko eragin negatibo garrantzitsuak dituzte beste alderdietan (psikologikoan eta sozialean) (19).

Ez da aurkitu estatistikoki esanguratsua den erlaziorik lo-orduen eta PD izateko arriskuaren artean. Alabaina, PDa duten pazienteek arrisku handia dute loaren, loezinaren eta loaren kalitate txarra izateko. Hau neurtzeko Çaltekin et al. Pittsburgh Sleep Quality Index (PSQI), Epworth Sleepiness Scale (ESS), Berlin Questionnaire eta Isomnia Severity Index erabili zituzten (21).

Azkenik, garrantzitsua da komentatzea ez direla desberdintasun estatistiko esanguratsurik baieztatzen dutenak GMI eta PDaren arteko erlaziorik. Ikertzaile askok uste baitzuten GMI altua edo baxua izateak PDaren larritasuna/intentsitatea handitu zitekeela (7,20,21).

1.2 Alderdi psikologikoa

Ikerketa hauen arabera, neskek baiesten dute beren alderdi fisikoak ez ezik, psikologikoak ere erasanduak daudela PDaren ondorioz. PDa sufritzen duten emakumeen esanen arabera, ohikoa izaten da antsietate eta depresioarekin lotutako arazoak aurkeztea. Datuek adierazpen hauek berresten dituzte (7,19–20). Çaltekin et al.-ek (21) argitaratutako lanean, PDa zuten pazienteek antsietate- eta depresio-puntuazio nabarmenki handiagoak zituzten parte-hartzaile osasuntsuekin alderatuta.

Harreman zuzen bat dago menstruazioaren aldeko jarrera positiboaren eta gorputz-irudi positiboago baten artean. Gure gizartean hilerokoa kontzeptu negatibotzat hartzen ohi da, hortaz, gorputz-irudiaren pertzepzioa okerragotzen da egun hauetan zehar. Gaizkiagotze hori oraindik ere nabarmenagoa da PDa pairatzen duten emakumeengan.

PDak, eragin negatiboa du emakumeen autoestimu zein autokontzeptuan. Hilerokoan zehar hainbat aldaketa gertatzen dira maila fisikoan, eta aldaketa horiek zuzenean eragiten diote emakumeen autopertzepzioari. Haien edertasun pertzepzioa txarrera doa, itsusiago edota desitxuratuta sentitzen direla adierazten baitute. Horren ondorioz, haien janzkera aldatu edo moldatzen dute egun hauetan zehar, arropa arina eta lasaia (gehien bat sabela estutzen ez diena) hautatuz (22).

Aitzitik, pazienteek hilerokoan zehar beren gogo-aldartean izandako aldaketen berri ere eman zuten, gorabehera emozionalak antzemanaz. Gogo-aldartearen fluktuazioaren ondorioz suminkorrago, adoregabe, energia faltarekin, jangura faltarekin ... sentitzen dira.

Fernandez et al.-ek Spainian burututako azterlanean (22), parte-hartzaileek adierazten zuten “emozionalki sentikorrago” hautematen zutela haien burua hilekoan zehar. Afektu-, pazientzia- eta zaintza-adierazpenekiko harmen handiagoa sentitzen zutela, baina amorragarriago ere agertzen zirela gustuko ez dituzten portaeren, kritiken edo iruzkinen aurrean.

Partaide batzuk nahiago izan zuten ondoez emozional hau ezkutatzea, baita autokontrol handiagoa lortzeko ahaleginak egitea ere, haien portaera hilekoaren ondorio bezala justifikatu behar ez izateko eta besteengatik epaituak izatearen beldurrez.

1.3 Alderdi soziala

PDak eragin negatibo handia du eguneroko jardueretan eta interferentzia handia eragiten du harreman sozial eta familiarretan. Wong-ek 2018 burututako ikerlanean esku-hartzaileen %80k adierazi zuten PDak haien eguneroko jarduerak mugatzen zituela (19).

PDa eskola eta lan absentismoaren lehengo kausa da mundu mailan. Errebisio honetan barne hartutako artikulua erreparatu gero hurrengo huts-egite ehunekoak aurkitu ditzazkegu: Wong-ek burututako azterlanean (19), partaideen %16k institutuan huts egin zuten azken 6 hilabetetan, Fernandez et al.-eko (7) partaideen %22k huts egin zuten lanera edo eskola/unibertsitate azken urtean eta Abreu et al. artikuluan (17) %62ko portzentajea eman zen Huelvako erizaintza ikasleen artean, azken urtean zehar. Al-Jefout et al.-ek (20) unibertsitate absentismoa min intentsitatearen arabera neurtu zuten; min arina zuten partaideen artean %10k huts egin zuten, min moderatua pairatzen zuten parte-hartzaileen artean %17k eta min larria sufritzen zuten partaideen artean %29k, azken 6 hilabeteetan. Datu horiek ikusita eta Abreu et al.-en (17) ikerlanean berresten den moduan, esan dezakegu min menstrualaren intentsitatea eta eskola/unibertsitate huts-egitea zuzenki proportzionalak direla.

Absentismotik at, Abreu et al.-ek (17) beste arazo bat azalatu zuten haien lanean, presentismoa. Ikerlan honetan, %92,7k aitortzen zuten presentismoa gauzatu zutela PDaren z/s izanda, azken urtean. Parte-hartzaileek honako arrazoi hauengatik justifikatu zuten haien presentismo: PDaren z/s jasagarriak/maneigarriak direlako, PDa huts egiteko arrazoia ez delako, gainerakoen aburuz PDa ez delako huts-egite arrazoia, arduratsua izateagatik edota ondorio akademikoengatik.

Mundu akademiko eta laboralean PDak eragiten dituen zailtasunez gain, beste arlo batzuetan ere efektu negatiboak ditu. Arlo sexu-afektiboari dagokionez, 2020an Frantzia burututako ikerketan, emakumeen %50k aditzera eman zuten dismenorreak inpaktu negatiboa zuela haien bizitza-sexualean, eta %20k harreman-sexualetan zehar min menstrual biziagotzen zela adierazi zuten.

Erasandako beste arlo bat, kirola da. Kasu honetan, partaideen %67k pentsatu zuten PDak inpaktu garrantzitsua/oso garrantzitsua zuela jarduera fisikoari dagokionez (18).

1.3.1 Osasun kulturarekin erlazionatutako arazoak

Jada aipatutako eragin eta aferetatik kanpo, bi dira erizaintzarekin zuzeneko harremana duten arazoak: PDaren inguruko osasun-aholkularitza ez bilatzea eta automedikazioa. Lan hau burutzeko hautetsi diren artikuluek berretsi dituzte horiek.

Aukeratutako idatzietan aditzera eman diren aholkularitza datuei dagokionez, Hong Kong-eko Bigarren Hezkuntzako ikasleen %93ek ez zuten osasun-aholkularitzarik bilatu (19) eta Abreu

et al.-ek 2020an idatzitako artikuluan (17), %75,3ek ez zuten osasun arretarik xerkatu, dismenorreak haien bizitzetan eragin garrantzitsua izan arren. Fernandez et al.-ek (18) burututako lanean berriz, portzentaje hau baxuagoa da (%66). Are gehiago, osasun-arreta bilatzea erabakitzen duten emakumeek z/s agertu eta denbora dezente igaro ondoren egiten dute. Aitzinean aipatu berri den artikuluan parte hartutako emakumeek, batekoz beste, lehengo sintomak agertu eta 2,3 urte igarota osasun-laguntza bilatu zuten. Bibliografiak, laguntzarik ez bilatzeko jasotzen dituen argudio nagusiak hurrengo hauek dira: PDaren sintomak normalizat hartzea, mina/ sintomak jasangarriztat jotzea, min menstrual iragankorra zelako, profesionalak laguntzarik eskainiko ez zutela pentsatzea, eskuragarri dauden tratamenduez ez fidatzea, arreta medikoa bilatzeaz beldur edo lotsa sentitzea eta inguruko beste pertsona batzuek sintomak berdinak jasaten zituztelako.

Automedikazioari dagokionez, bere kabuz tratamendu farmakologikoa hartzen duten emakumeen kopuruak asaldagarriak dira. Huelvako unibertsitate ikasleei burututako lanean, partaideen %90ek adierazi zuten automedikazten zirela (17) eta Ciudad Realeko emakume unibertsitarioen artean, %84,2ek (7). Fernandez et al.-ek (18) burututako ikerlanean %54k adierazi zuten automedikazioaz baliatu zirela eta Hong-Kongeko bigarren hezkuntzako ikasleen artean %18ek (19). Aurkeztutako ehunekoen arteko aldea nabaria da. Kopuru hauen azalpena izan daiteke Espainan, Txinan ez bezala, zenbait medikamendu eskuratzeko baldintza bakarra 18 urtetik gorakoa izatea da, aldez aurretik inolako aholkurik edo agindurik eman beharrik gabe. Gainera kulturak papera garrantzitsua jokatzen du, zenbait gizarteetan “medikuntza tradizionala” eta homeopatiak pisu garrantzitsua baitu.

Laburbilduz, PDak eragin biopsikosoziala dauka emakumeen bizitzan. Arlo fisikoari dagokionez, sintomarik pisutsuena mina da, horren intentsitatea moderatu-larria izaten baita eta beste arloetan eragin handia duelako. Sail psikologikoari dagokionez, depresio, antsietate eta emozioekin zerikusia duten alterazioak ematen ohi dira. Gainera, menstruazio garaian autokontzeptuak okerrera egiten du, eta, ondorioz, autoestimua ere bai. Azkenik alor sozialean, PDak hainbat arazo eragiten ditu, haien artean, eskola edota lan absentismoa, presentismoa, gizarteratze arazoak, arazoak arlo sexualean... Azpimarratzekoak dira osasun-kulturarekin erlazionatutako arazoak, osasun-arreta ez bilatzea eta automedikazioa, hauek baitira erronka garrantzitsu bat gure osasun-sistemarentzat.

1. ERIZAINZAKO INTERBENTZIOAK

Gure gizartean hilekoari eta dismenorreari buruz dauden mito eta tabuek eragin zuzena izan dute emakumeek PDa tratatzeko duten moduan. Kontuan hartuta informazio-iturri nagusiak ama, ahizpa, lagun eta ezagunak direla, horiek proposatutako erremedio askok ez dute oinarri zientifikorik. Orduan, zer zainketa daude ebidentzian oinarrituta PDaren sintomak arintzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko? Zer egin dezakete erizainek?

2.1 Zuzeneko interbentzioak

PDa determinatzeko bazterketa-diagnostiko bat burutu behar da, ez baitago inolako proba espezifikorik PDa diagnostikatzeko. Horregatik, erizaintza kontrol-kontsultak eta erizaintza balorazioa axola handiko instrumentuak izan daitezke PDa pairatzen duten edo pairatu dezaketen pazienteak antzemateko (23). Zoritxarrez topatutako artikuluetan bakarrik gainera aipatzen dira interbentzio mota horiek, ez baitira hauei buruzko ikerkuntza espezifikorik burutu. Hortaz, etorkizuneko azterlanei dagokionez, egokia izango zen erizaintza-jardunbide horiek barneratzea ere.

- *Osasun hezkuntza*

Kontuan hartuta dismenorea duten pertsona gehienek ez dutela osasun-arretarik bilatzen, garrantzitsua da osasun-sistemak berak horrelako pazienteak detektatzea. Hau lortzeko, osasun hezkuntzak berebiziko garrantzia du, gizarte-mailan. Funtsezkoa da osasunaren arloko profesionalak hilekoaren inguruko alderdi kulturalak eta mitologiak kontuan hartzea, ikuspegi biokulturala duen arreta eskaintzeko. Osasun-programak ez dira soilik mina arintzean oinarritu behar, baita bizi-kalitatean sortzen dituen zailtasunak hobetzean ere (22).

Gradu amaierako lan honetan barneratu diren ikerlanen partaide gehienek ez dute ebidentzian oinarritutako hezkuntza menstrualik jaso. Wong et al-ek (19) Hong-Kong-eko nerabeei gauzatutako ikerketan adibidez, %56,8ek adierazi zuten hezkuntza menstrualak jaso zutela (gehienak amaren eskutik) eta zalantza bat izatekotan ama edo lagun batengana jotzen zutela. Antzeko datuak jaso ziren Jordaniako medikuntza ikasleei burututako lanean, %70ek adierazi baitzuten haien ama zela informazio iturri nagusia, PDari dagokionez. Hori dela eta, egileek proposatzen dute osasun-hezkuntza sesioetan pazientearen ama barruratzea egokia izan litekeela (20).

Probetxuzko osasun hezkuntza esku-hartzeak egin ahal izateko garrantzitsua da pazienteen eskaerak kontuan hartzea. Huelvako erizaintza ikasleei burututako azterlanean, parte-hartzaileek ingurune seguru bat izateko beharra azpimarratu zuten, PDari, minari eta haien sententzioei buruz argi eta garbi hitz egin ahal izateko. Neskek deskribatutako espazio seguruak honako ezaugarri hauek betetzen zituzten: ulertuak sentitzeko lekua izan behar zuten, non beste entzule-

solaskideek haienganako enpatia erakusten zuten, non PDaren inguruan askatasunez hitz egin zezaketen eta non PDak eragindako mina zein zailtasunak ez ziren kolokan ipintzen.

Esan genezake erizaintzako kontsultak, pazienteek eskatutako karakteristika guzti hauek bete ditzaketela; baina horretarako, nahitaezkoa da harreman terapeutiko sendo bat ezartzea PDa pairatzen duen emakumearekin (22).

Automedikazioaren arazoari dagokionez, aurretik aurkeztutako datuek automedikazioaren ulermena hobetzeko beharra agerian utzi dute. Orokorrean *antiinflamatorio no esteroideoak* (AINE) PD tratatzeko lehen leerroko tratamendu farmakologiko gisa erabiltzen dira, gehien erabiltzen dena Ibuprofenoa da. Aurretik komentatu den bezala, gure estatuan zenbait medikamendu (ibuprofenoa haien artean) erraz lortu daitezke eta sarritan burutzen da automedikazioa horiekin. Halaber, neskei gogorarazi behar zaie hezkuntza egokia jaso ondoren bakarrik jo behar dutela automedikaziora (7,18,20,23,24).

Junk et al.-ek aurrera eramandako azterlanean, osasun-hezkuntza interbentzio baten eraginkortasuna erakutsi zuten PDa pairatzen duten pazienteen min eta bizi-kalitatean. Talde esperimentalak 10 minutuko hitzaldia jaso zuen, PDrako egokia den medikazio analgesikoaren (AINE) inguru. Horrek, hobekuntza nabariak eragin zituen analgesikoen erabilera egokiarekin lotutako egungo ezagutza zein portaeraren gainean eta, ondorioz, min menstrualean zein emakumeen bizi-kalitatean. Azterlan honen beste aurkikuntza esanguratsu bat izan zen, aldaketa esanguratsua egon zela esku-hartze taldeko hezkuntza-premiaren pertzepzio-mailari dagokionez. Horrek iradokitzen du hezkuntza-esperientzia duten emakumeek joera izan dezaketela, hurrengo batean, gai horrekin lotutako hezkuntza interbentzio batean parte hartzeko (25).

Laburbilduz, osasun hezkuntza oinarriko erizaintza interbentzioa da PDaren maneian. Garrantzitsua da osasun-langileak izatea pazienteen eta senideen informazio-iturri nagusia hilerokoari eta PDari dagokienez, egiazko informazioa eta ebidentzian oinarritutakoa jaso dezaten. Saiok eraginkorrak izan daitezzen, garrantzitsua da harreman terapeutiko sendoa sortzea eta pazienteen beharretara eta karakteristiketara egokitzea.

2.2 Bizi-ohituretan oinarritutako interbentzioak

Erizainak zeregin garrantzitsua betetzen du arreta-maila guztietan, eta profesional estrategikoa da osasuna sustatzen duten bizimoduan aldaketak bultzatzen pazienteen artean. Kasu honetan, PDaren aldekoak diren osasun-ohitura batzuk aurkitu dira.

- *Jarduera fisikoa*

Azken urteotan, ikerketa anitz egin dira kirolak minean duen eraginari buruz. Gradu amaierako lan honetan jasotako literaturak erakusten du ariketa fisikoak, zalantzarik gabe, mina hobetzen duela, eta, ondorioz, PDa duten pazienteen bizi-kalitatea ere.

Armour et al.-ek burututako errebisio sistematikoan kirolean oinarritutako 5 artikulua barneratu zituzten. Horiek ondorioztatu zuten, ariketa fisikoak, murrizketa positiboak eragiten dituela minaren intentsitatean, iraupenean eta hileroko minarekin lotutako beste z/s gogaikarri batzuetan. Kirola medikamentu analgesikoak (AINE) baino eraginkorragoa izan zen, neurri batean, minaren intentsitatea murrizteko, eta minaren murrizketa handia erakutsi zuen, tratamendu ezarekin alderatuta (23).

Ariketa fisikoaren ingurua, ez bai hedatu bat ematen da: Zein ekintza dira eraginkorragoak PDan, intentsitate handiko edo txikiko ariketa fisikoak? Jarduera fisikoaren intentsitate desberdinek prostaglandinen gutzitako kantitatea murriztu dezakete hainbat mekanismoren bidez; horrela, PDaren fisiopatologia kontuan hartuta, haren sintomak murriztu ditzake. Lan honetan jasotako artikuluek ideia hori babesten dute (23).

Yang et al.-ek, yoga programa baten eraginkortasuna esperimentatu zuen, Daejeon hiriko erizaintzako ikasleen hilekoaren karranpa eta ondorezaren gainean. Gauzatutako yoga programak 3 zati zituen: "Surya namaskara" (12 postura eta arnasketa ariketak barneratzen ditu), hiru pose (kobra, katua eta arraina) eta "yoga nidra" (erlaxazioa eta meditazioan oinarritutakoa). Programa 12 asteko iraupena izan zuen, saioak astean behin egiten ziren eta yoga jardutea ordu bateko iraupena zuen. Azterlana bi taldek osatu zuten, aurkeztutako yoga programa jarraitu zutenak eta kontrol talde bat, ez zutenak interbentziorik jaso.

Talde esperimentalak nabarmen murriztu zuen hilekoaren minaren eta larritasunaren intentsitatea, yoga egiten hasi aurretik izandakoarekin alderatuta, baita kontrol-taldearekin alderatuta ere. Minaren iraupenari dagokionez, yoga programa osatu zuen taldeak minaren iraupena murriztea lortu zuen haien egoera basalarekin alderatuta. Aldiz, ez ziren arlo honetan desberdintasun adierazgarriak aurkitu kontrol taldearekin alderatuta. Egileek, beste azterlan batzuek aditzera ematen duten bezala, iradokitzen dute yogak ondorio psikologikoak murriztu ditzakeela, hala nola umore-aldaketak, jarduerak ariketa fisikoak zein mentalak konbinatzen baitituzte (23,26).

Kannan et al.-ek ariketa aerobikoaren eraginkortasuna erakutsi nahi izan zuen, PDA pairatzen duten pazienteen minaren, eguneroko funtzionamenduaren eta bizi-kalitatearen gainean. Proposatutako esku-hartzeak, 7 hilabeteko iraupena izan zuen, eta bi fasetan banatu zen. Lehenengo faseak 4 asteko iraupena izan zuen eta emakume bakoitzaren hilekoa amaitu eta hurrengo egunean hasi eta hurrengo hilerokoa hasi aurretik amaitu zen. Hasierako entrenamendu hauek Dunedin hiriko Fisioterapia Eskolan burutu ziren, astean hirutan, eta gainbegiratuak izan ziren. Entrenamendua beroketa-ariketekin hasten zen (10 minutuz), korrika egiteko zintan 30 minutuko ariketa sendoarekin jarraitzen zuten (aldeztatik kalkulaturako %70-%85eko gehieneko bihotz-maiztasuna lortu) eta hozte-ariketekin amaitzen zen (beste 10 minutu).

Bigarren fasean, parte-hartzaileek beren kabuz burutu behar zuten jarduera fisikoa. Parte-hartzaileei atxikidura-egunkari bat eman zitzaien, lehenengo fasean egindako batez besteko datuekin. Bigarren fase hau betetzeko, fisioterapia eskolan lortutako datuekin kalkulaturako entrenamendu aerobikoaren intentsitatea eta distantzia objektiboa betetzeko eskatu zitzaien. Interbentzioa nabarmenki eraginkorragoa izan zen minaren kalitatea, intentsitatea eta interferentzia murrizteko, esku-hartzea hasi eta 4 astera, kontrol-taldearekin alderatuta. Lau hilabetetik azterlana amaitu arte, onura nabarmenak eman ziren bizi-kalitatean eta “eguneroko funtzionamenduan”. Interesgarria da aipatzea ez zirela hobekuntzarik eman lo-kalitatean (27).

Hitz gutxitan, frogatu da kirola faboragarria dela PDaren sintomak arintzeko. Lan honen barnean sartutako artikuluen arabera, intentsitate txikiko eta intentsitate handiko ariketa fisikoa erabilgarria dela esan dezakegu. Haatik, gomendagarria litzateke etorkizuneko ikerketek aurkikuntza hori berrestea.

- *Elikadura ohiturak*

PDaren sintomak hobetzen eta okertzen dituzten elikagaiei buruzko hipotesi ugari existitzen dira eta oraindik ikerketa prozesuan daude elikagai/elikagai talde batzuek hileroko minaren prebentzioan dituzten onurak.

Valverde et al.-ek Bartzelonako erizaintza ikasleekin burututako ikerketan faktore babesle moduan identifikatu dira zenbait espezien (kurkuma, piperbeltza, jenjibrea eta kuminoa) asteroko kontsumoa eta ezkaia hileroko kontsumoa.

Espainiako Barne Medikuntzako Elkarrekin eta “Elikadura Erronboak” gomendatzen dute dieta orekatua jarraitzea, fruta eta barazkietan aberatsa dena, PDa ekiditeko edo arintzeko. Halaber, ezagutarazi da azukreetan, “snack” gazietan, tean, kafean, fruta-zukuetan eta gantz-azidoetan aberatsak diren dietak, PDren arrisku-faktorea direla. Bitxia da beraz Valverde et al.ek burututako azterlanean parte hartzen duten emakumeetan ematen den kontraesana. Haien ustez fruta eta barazkiak dismenorrearen sintomak hobetzeko mesedegarriak direla pentsatu arren, haien hilerokoan zehar txokolate eta gozoki erako jangaiak gurago zituzten (28).

Ondorioz, erizainek honako gomendio hauek eman lizkiekete PDa pairatzen duten pazienteei: dieta orekatua, azukre eta saturatu gabeko gantz gutxikoa eta fruta zein barazki ugari jarraitzea, eta hainbat espezia maiz kontsumitzea.

2.3 Beste interbentzio motak

Emakumeek beren kabuz egin ditzazketen esku-hartzeak tresna garrantzitsuak dira beren "gaixotasunaren kudeatzaile" bihurtzeko. PDa pairatzen dutenen iritziz, "autozainketak" areagotu egiten du hilekoaren zikloak kontrolatu ahal izatearen sententzia, eta, bereziki, hilekoaren mina. Hitz batez, haien kabuz burutu ditzazketen esku-hartzeak, emakumeak ahalduz dituzte (23).

- *Bero terapia*

Neurri ez-farmakologikoen artean bero terapia erabilienetakoa da PDa pairatzen duten pazienteen artean; Fernandez et al.-ek (7) Ciudad-Realeko unibertsitate ikasleei burututako ikerketan, %61ek erabili zuten eta Fernandez et al.-ek (18) Frantziako emakumei burututako ikerketan, %79ek.

Armour et al.-ek (23) burututako errebisio sistematikoan bero terapiaren inguruko lau artikulu batu zituzten. Hauek, bero terapiak min menstrualaren murrizketa moderatua erakutsi zuten plazebo edo tratamendu ezaren aurrean, baina farmako analgesikoekin konparatuta, efikazia gutxiagoa erakutsi zuten. Junyoung et al.-ek (24) argitaraturako errebisio sistematikoa bat dator; bero-terapiarekin, PDa zuten emakumeen mina nabarmen murriztu zen plazebo terapiarekin alderatuta.


Badirudi beroa "erreserbatu" daitekeela hilekoan bertan erabiltzeko, mina azkar eta epe laburrean murrizteko. Bada, beroa tratamendu lagungarri (*adyubante*) gisa erabiltzea gomendatzen da. Dena dela, nahiz eta oso erabilia den sendabidea izan, ebidentzia gutxi dago gai honen inguruan, eta, beraz, litekeena da datozen urteetan informazio gehiago izatea (23).

- *Akupresioa*

Terapia osagarriak eta alternatiboak, akupresioa barne, gero eta gehiago eskaintzen dira munduko leku batzuetan erizaintzako zaintza holistikoen barruan.

Armour et al.-ek (23) burututako errebisio sistematikoan, akupresioaren inguruko 14 artikulu barruratu zituzten. Akupresioaren eragin globalak hileroko min orokorraren murrizketa moderatua erakutsi zuen, nahiz eta hau ez zen medikazioa analgesikoa bezain eraginkorra izan hileroko mina murrizteko.

Bazarganipour et al.-ek (29) PDa pairatzen zuten Iraneko unibertsitate ikasleei burututako ikerketan, bi akupresio puntuen eta plazebo akupresio puntu baten eraginkortasuna ebaluatu zuen. Lehenengo taldeak, LI4 puntuan burutu zuen akupresioa, bigarren taldeak LIV3 puntuan eta hirugarren taldeak plazebo puntu batean.



Interbentzioa 3 ziklo-menstrualen iraupena izan zuen. Lehenengo zikloa kontrol moduan erabili zen. Bigarrenean, hilerokoa hasi baino 3-7 egun aurretik parte-hartzaileek ikertzaile batekin batu ziren eta 20 minutuko sesio batean akupresioa jaso zuten eta teknika burutzen ikasi zuten. Hirugarren zikloan parte-hartzaile bakoitzak bere kabuz egin ahal izan zuen akupresioa (2 minutuz egunero).

Bigarren ziklotik aurrera hobekuntza esanguratsuak eman ziren interbentzio taldeen artean minaren intentsitate zein iraupenean eta bizi-kalitatean (29).

Blödt et al.-ek (30) egindako ikerlanean, partaideek “AKUD” izeneko app-a frogatu zuten. App honek bi taldeentzako hilekoaren informazioa eta egunkariaren bistaratzea barne hartu zuen. Interbentzio taldeak app-aren beste aukera baterako sarbidea zuen; akupresio-prozeduraren azalpenak, marrazkiak, bideoak eta akupresio-puntuaren argazkiak jasotzen zituena, baita puntu bakoitzeko minutu bateko akupresioa gidatzeko tenporizadore bat ere. Kasu honetan erabilitako akupresio puntuak SP6, LI4 eta LR3 izan ziren (gorputzeko bi aldeetan). App-ak eguerdioro gogorarazten zien emakumeei, hilekoa hasi baino 5 egun lehenagotik, akupresioa aplikatu behar zutela.

App-ren laguntzarekin auto-akupresioa aplikatu zuten emakumeek mina arindu zuten 3 zikloren ondoren (30).

Ondorioz, esan dezakegu, berrikusi diren artikuluek zehazten dutela akupresioa, zainketa baliagarria dela PDrako. Kontuan izan behar dugu horrelako praktikak ez direla oso arruntak gure gizartean, eta, beraz, gaur egun gutxi erabiltzen direla. Ciudad Real-ean burututako ikerlanean (7), erizaintza unibertsitate ikasleen %3,5k soilik erabiltzen zuten akupresioa PDa tratatzeko. Komenigarria litzake, gure estatuan burutuko diren hurrengo azterlanetan akupresioa barneratzea, akupresioak gure gizartean duen eraginkortasuna ikusteko, gure kultura eta bizimodua kontuan hartuta.

ONDORIOAK ETA MUGAK

Lan honetan jorratu denaren ondorioz berretsi dezakegu, PD prebalentzia handiko osasun arazoa dela Espainia mailan zein mundu mailan, eta eragin handia zein esanguratsua duela eguneroko bizitzan eta bizi-kalitatean. Mina sintoma nagusia bada ere, arazoa ez da soilik min menstrualera mugatzen, badira maila biopsikosozialeko beste z/s batzuk PD duten pazienteen bizi-kalitateari modu holistikoan eragiten diotenak.

Gradu amaierako lan honetan osasun-kulturekin erlazionatutako eta osasun sistemari zuzenki eragiten dioten bi arazo identifikatu dira: PDaren inguruko osasun aholkularitza ez bilatzea eta automedikazioa. Erizaintzak funtseko lana dauka bi arazo hauei aurre egitean, osasun hezkuntzaren bidez.

Beharrezkoa da PDa azalerraztea, emakume gehiago joan daitezkeen osasun-sistemara, eta, era berean, komunitate osoa kontzientziatu dadin PDari buruz. Horrela, PDaren inguruan historikoki egon diren mito eta ideia okerrak desagerrarazi ahal izango lirateke.

Gaur egun arte, PD pairatzen zuten pertsonen tratamendua, farmakoen bidez mina arintzean zentratu da. Ohera, PD pairatzen duten emakumeen bizi-kalitateari buruz eskuratutako datuek agerian utzi dute arazo honen ebaluazioa eta tratamendua ikuspegi biokultural integral batetik egin behar dela, pertsonak eta haien premiak/beharrak ardatz hartuta, eta ez soilik hilekoaren mina maneiatzean zentratua. Dena den, farmakoei dagokionez, PDa pairatzen duten pazienteei, analgesikoen erabilera egokia egiten irakatsi behar zaie, automedikazio arazoak saihesteko.

Osasun hezkuntzatik at, beste bi multzotan banatu dira aurkitutako esku-hartzeak.

